

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 13/2020 Zerga premiazko araugintzako Dekretua, urriaren 13koa. Onespena ematea Balio Erantsiaren gaineko Zerga doitzeko neurriei, COVID-19ren ondorioz**

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Itun Ekonomikoa onetsi zuen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 26. artikulua xedatzen du balio erantsiaren gaineko zergari Estatuak aldi bakoitzean xedatzen dituen funtsezko arau substantibo eta formal berak aplikatuko zaizkiola.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honek urruneko lanari buruzko irailaren 23ko 28/2020 Errege Lege Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa egokitzen du, zenbait eragiketari aplika dakioken Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga tasari dagokionez. Hala, 2020ko urriaren 31ra arte luzatzen da COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasunen emateei, inportazioei eta erkidego barruko eskuratzeei aplikatzen zaizkien ehuneko 0ko zerga tasa, hartzaileak erakunde publikoak, irabazteko xederik gabeko erakundeak eta ospitaleak badira. Hasiera batean, neurri hori 2020ko uztailaren 31ra arte ezarri zen maiatzaren 12ko 5/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren bidez. Dekretu horrek Arabako zerga araudia apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretura (ekonomia eta enplegua laguntzeko premiazko neurri osagarri buruzkoa) egokitzea onetsi zuen.

Halaber, neurri hori aplikatu behar zaien ondasunen zerrenda eguneratu da, atzeraeraginezko ondorioekin.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorak 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hauxe

#### XEDATZEN DUT

**Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga tasa, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasunen emateei, inportazioei eta erkidego barruko eskuratzeei aplikatzekoa**

Balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko tasa aplikatuko zaie, 2020ko apirilaren 23tik 2020ko urriaren 31ra arte, Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen eranskinean jasotako ondasunen emateei, inportazioei eta erkidego barruko eskuratzeei, hartzaileak izanik zuzenbide publikoko erakundeak, klinikak edo ospitaleak edo gizarte izaerako erakunde pribatuak; hain zuzen ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 20. artikuluko hiru apartatua aipatutakoak. Eragiketa horiek eragiketa salbuetsi gisa dokumentatuko dira fakturan.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta han bertan adierazitako ondorioak izango ditu.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera baliozkotu edo erreboka dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 13a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**

## ERANSKINA

	Produktuaren izena	Ondasunaren/Produktuaren deskribapena	NC kodea
1	Gailu medikoak	Zainketa intentsibo eta azpintentsiboetarako arnagailuak	ex 9019 20 00
		Haizagailuak (arnasketa artifizialerako aparatuek) Fluxu zatigailuak	ex 9019 20 00 ex 9019 20
		Oxigenoterapiako beste aparatu batzuk, oxigeno dendak barne	ex 9019 20 00
		Gorputzez kanpoko mintzaren bidezko oxigenazioa	ex 9019 20 00
2	Monitoreak		ex 8528 52 91
		Parametro anitzeko monitoreak, bertsio eramangarriak barne	ex 8528 52 99
			ex 8528 59 00
			ex 8528 52 10
3	Ponpak	– Kanpoko nutriziorako ponpa peristaltikoak	ex 9018 90 50
		– Medikamentuen infusio ponpak	ex 9018 90 84
		– Xurgatze ponpak	ex 8413 81 00
		Xurgatze zundak	ex 9018 90 50
4	Hodiak	Hodi endotrakealak	ex 9018 90 60
		Hodi esterilak	ex 3917 21 10 ex 3917 39 00
5	Kaskoak	Aireztapen mekaniko ez-inbaditzaileko CPAP/NIV kaskoak	ex 9019 20 00
6	Aireztapen ez-inbaditzaileko maskarak (NIV)	Aurpegi osoko maskarak eta aireztapen ez-inbaditzaileko oronasalak	ex 9019 20 00
7	Xurgatze sistemak/makinak	Xurgatze sistemak	ex 9019 20 00
		Xurgatze elektrikoko makinak	ex 9019 20 00 ex 8543 70 90
8	Hezegailuak		ex 8415
			ex 8509 80 00
			ex 8479 89 97
9	Laringoskopiaok	Laringoskopiaok	ex 9018 90 20

	Produktuaren izena	Ondasunaren/Produktuaren deskribapena	NC kodea
10	Hornidura mediko suntsikorrak	– Intubazio kitak	ex 9018 90
		– Guraize laparoskopikoak	
		Xiringak, orratzarekin edo orratzik gabe	ex 9018 31
		Orratz metaliko tubularrak eta sutuaretarako orratzak	ex 9018 32
		Orratzak, kateterrak, kanulak	ex 9018 39
		Sarbide baskularreko kitak	ex 9018 90 84
11	Monitorizazio estazioak Pazienteak monitorizatzeko aparatuak – Elektrodiagnostikoko aparatuak	Zainketa intentsiboetarako monitorizazioko estazio zentralak	ex 9018 90 ex 9018 19
		Pultsu oximetroak	
		– Pazienteak monitorizatzeko gailuak – Elektrodiagnostikoko aparatuak	ex 9018 19 10 ex 9018 19 90
12	Ultrasoinu eskaner eramangarria	Ultrasoinu eskaner eramangarria	ex 9018 12 00
13	Elektrokardiografoak	Elektrokardiografoak	ex 9018 11 00
14	Ordenagailu bidezko tomografia sistemak/eskanerrak	Ordenagailu bidezko tomografia sistemak	ex 9022 12, ex 9022 14 00
15	Maskarak	– Ehunezko aurpegi maskarak, iragazki ordezkagarriak eta pieza mekanikorekin gabeak, barnean direla ehuna ez den ehun materialarekin egindako maskara kirurgikoak eta erabili eta botatzeko aurpegi maskarak. – FFP2 eta FFP3 aurpegi maskarak	ex 6307 90 10 ex 6307 90 98
		Paperezko maskara kirurgikoak	ex 4818 90 10 ex 4818 90 90
		Pieza mekanikoak edo iragazki ordezkagarriak dituzten gas maskarak agente biologikoen aurka babesteko. Begien babesa edo aurpegiaren babesak dituzten maskarak ere baditu.	ex 9020 00 00
16	Eskularruak	Plastikozko eskularruak	ex 3926 20 00
		Gomazko eskularru kirurgikoak	4015 11 00
		Beste gomazko eskularru batzuk	ex 4015 19 00
		Plastikoz edo gomaz inpregnatutako edo estalitako galtzeta eskularruak	ex 6116 10
		Galtzetaz bestelako ehunezko eskularruak	ex 6216 00

	Produktuaren izena	Ondasunaren/Produktuaren deskribapena	NC kodea
17	Aurpegi babesak	– Erabili eta botatzeko eta berrerabiltzeko diren aurpegi babesgailuak – Plastikozko aurpegi babesgailuak (begiak baino gehiago babesten dutenak)	ex 3926 20 00 ex 3926 90 97
18	Betaurrekoak	Babes gaga handiak eta txikiak (googleak)	ex 9004 90 10 ex 9004 90 90
19	Lan jantziak Mantal iragazgaitzak –hainbat mota, hainbat tamaina- Erabilera kirurgiko/medikorako feltrozko edo ehundu gabeko oihalezko babes jantziak, baita inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo ijeztuak ere (56.02 edo 56.03 partidetako ehunak).	Goma bulkanizatuzko erabilera anitzeko arropa (eskularruak, mitoiak eta eskuzorroak barne)	ex 4015 90 00
		Jantzeko arropak	ex 3926 20 00
		Arropa eta osagarriak	ex 4818 50 00
		5903, 5906 edo 5907 partidetako puntuzko ehunarekin eginiko jantzeko arropak	ex 6113 00 10 ex 6113 00 90
		Galtzeta ehunarekin eginiko beste arropa batzuk	6114
		Erabilera kirurgiko/medikorako feltrozko edo ehundu gabeko oihalez eginiko jantzeko arropak, inpregnatuak zein inpregnatu gabeak, estaliak, gaineztatuak edo ijeztuak (56.02 edo 56.03 partidetako ehunak). Barnean sartzen dira ehundu gabeko materialez eginiko jantziak («spun-bonded»)	ex 6210 10
		Babesteko beste jantzi batzuk, ehun kautxutatu edo inpregnatuekin, estaliekin, gaineztatuekin edo ijeztuekin eginak (59.03, 59.06 edo 59.07 partidetako ehunak)	ex 6210 20 ex 6210 30 ex 6210 40 ex 6210 50
20	Oinetakoen estalkiak/babesak	Oinetakoen estalkiak/babesak	ex 3926 90 97 ex 4818 90 ex 6307 90 98
21	Txapelak	Mokodun txapelak	ex 6505 00 30
		Txapelak eta burua babesteko beste gailu batzuk eta edozein materialez eginiko sare ehunak	ex 6505 00 90
		Gainerako txapelak eta burua babesteko gailuak, forratuak/estutuak ala ez.	ex 6506

	Produktuaren izena	Ondasunaren/Produktuaren deskribapena	NC kodea
22	Termometroak	Zuzeneko irakurketarako likidozko termometroak	ex 9025 11 20
		Barnean hartzen ditu "Mercurio beiratu" termometro kliniko estandarrek	ex 9025 11 80
		Termometro digitalak edo termometro infragorriak bekokian neurtzeko.	ex 9025 19 00
23	Eskuak garbitzeko xaboa	Xaboa eta produktu organiko tentsioaktiboak eta eskuak garbitzeko prestakinak (apain-mahaiko xaboa)	ex 3401 11 00 ex 3401 19 00
		Xaboa eta produktu organiko tentsioaktiboak. Xaboa veste era batzuetan.	ex 3401 20 10 ex 3401 20 90
		Agente organiko tentsioaktiboak (xaboa ez direnak) – Kationikoak	ex 3402 12
		Azala garbitzeko produktu eta prestakin organiko tentsioaktiboak, likidoan edo kreman, txikizka saltzeko prestatuak, xaboa izan ala ez.	ex 3401 30 00
24	Horman instala daitezkeen eskuetarako desinfektatzaile banagailuak	Horman instala daitezkeen eskuetarako desinfektatzaile banagailuak	ex 8479 89 97
25	Soluzio hidroalkoholikoa litrotan	2207 10: desnaturalizatu gabe, % 80ko edo gehiagoko alkohol etilikoaren bolumenarekin.	ex 2207 10 00
		2207 20: desnaturalizatu, edozein kontzentraziokoa	ex 2207 20 00
		2208 90: desnaturalizatu gabe, % 80 baino gutxiagoko alkohol etilikoaren bolumenarekin.	ex 2208 90 91 ex 2208 90 99
26	Hidrogeno peroxidoa % 3an, litrotan Hidrogeno peroxidoa prestakin desinfektatzaileetara erantsia, gainazalak garbitzeko	Hidrogeno peroxidoa, urearekin solidotua ala ez	ex 2847 00 00
		Hidrogeno peroxidoa ontziratu gabe	ex 3808 94
		Eskuetarako desinfektatzailea Beste prestakin desinfektatzaile batzuk	
27	Larrialdietako garraio gailuak	Pertsona desgaituak garraiatzea (gurpildun aulkiak)	ex 8713
		Pazienteak ospitale edo klinika barruan garraiatzeko esku oheak eta orgatxoak	ex 9402 90 00
28	ARN erauzgailuak	ARN erauzgailuak	9027 80

	Produktuaren izena	Ondasunaren/Produktuaren deskribapena	NC kodea
29	COVID-19rako proba kitak / proba diagnostikoetan erabiltzen diren tresnak eta aparatuak	– Koronabirusaren proba diagnostikorako kitak – Erreakzio immunologikoetan oinarritutako diagnostiko erreaktiboak – Isipu ekipoa eta garraibide birala.	ex 3002 13 00 ex 3002 14 00 ex 3002 15 00 ex 3002 90 90 ex 3821 00
		Polimerasaren kate erreakzioan oinarritutako diagnostiko erreaktiboak (PCR) azido nukleikoaren proba.	ex 3822 00 00
		Laborategi klinikoetan, in vitro diagnostikorako erabilitako tresnak	ex 9027 80 80
		Laginetarako kitak	ex 9018 90 ex 9027 80
30	Isipuak	Guata, gasa, bendak, kotoi zotzak eta antzeko gaiak	ex 3005 90 10
			ex 3005 90 99
31	Kanpaina ospitaleak instalatzeko materiala	Ospitaleko oheak	ex 9402 90 00
		Karpak/kanpin dendak	ex 6306 22 00 ex 6306 29 00
		Karpak/plastikozko kanpin dendak	ex 3926 90 97
32	Botikak	– Hidrogeno peroxidoa sendagai itxuran Parazetamola – Hidroklorokina/klorokina – Lopinavir/Ritonavir – Remdesivir – Tocilizumab – Ruxolitinib.	ex 3003 90 00 ex 3004 90 00 ex 2924 29 70 ex 2933 49 90 ex 3003 60 00 ex 3004 60 00 ex 2933 59 95 ex 2934 10 00 ex 2934 99 90 ex 3002 13 00 ex 3002 14 00 ex 3002 15 00 ex 2933 59 95
33	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak	ex 8419 20 00 ex 8419 90 15
34	1- propanola (alkohol propilikoak) eta 2- propanola (alkohol isopropilikoak)	1- propanola (alkohol propilikoak) eta 2- propanola (alkohol isopropilikoak)	ex 2905 12 00
35	Etarrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol peroxidoak, beste peroxido batzuk, zetona peroxidoak	Etarrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol peroxidoak, beste peroxido batzuk, zetona peroxidoak	ex 2909
36	Azido formikoa	Azido formikoa (eta gatz deribatuak)	ex 2915 11 00 ex 2915 12 00
37	Azido salzilikoa	Azido salzilikoa eta gatz deribatuak	ex 2918 21 00

	Produktuaren izena	Ondasunaren/Produktuaren deskribapena	NC kodea
38	Erabilera bakarreko oihalak, 5603 partidako ehunekin eginak, prozedura kirurgikoetan erabilitako motakoak	Erabilera bakarreko oihalak, 5603 partidako ehunekin eginak, prozedura kirurgikoetan erabilitako motakoak	6307 90 92
39	Ehundu gabeko oihalak, inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo ijzatuak egon ala ez	Ehundu gabeko oihalak, inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo ijzatuak egon ala ez	ex 5603 11 10 a ex 5603 94 90
40	Erabilera kirurgikoko, medikoko edo higienikoko gaiak, txikizka saltzeko ez direnak	Paperezko ohe estalkiak	ex 4818 90
41	Laborategiko beirateria, higienerako edo farmaziarako	Laborategiko beirateria, higienerako edo farmaziarako, kalibratuak zein graduatuak egon ala ez.	ex 7017 10 00 ex 7017 20 00 ex 7017 90 00
42	Fluximetroa, 0-15 L/min oxigenoa hornitzeko Thorpe hodi fluxumetroa.	Thorpe hodi fluxumetroak sarrera eta irteerako atakak ditu, erregulatzailer bat, balbula bat eta neurtzeko hodi koniko garden bat. Hainbat gas medikoren iturriekin konektatzeko balio du, hala nola sistema zentralizatu batekin, zilindroekin (bonbonak), kontzentragailuekin edo konpresoreekin. Fluxumetro arruntaren (absolutua, konpentsatu gabea) eta presio konpentsatuaren bertsioak, fluxu maila espezifikotarako egokiak	ex 9026 80 20 ex 9026 80 80 ex 9026 10 21 ex 9026 10 81
43	Arnasketako CO2 detektagailu kolorimetrikoa	Haurren eta helduen hodi endotrakealarekin bateragarria den tamaina Erabilera bakarrekoa.	ex 9027 80
44	X izpien filma edo plakak	Laua, sentsibilizatua eta inpresionatu gabea Biribilkitan. Sentsibilizatua eta inpresionatu gabea	ex 3701 10 00 ex 3702 10 00